



XXV. TOPAKETAK "Eskola Publikoa norantz"

PORTALEA KULTUR ETXEA - Eibar
2008ko azaroaren 20 eta 21

AURKIBIDEA

1. SARRERA
2. PARTAIDEEN DATUAK
3. HAUSNARKETAREN ARDATZA
4. LANTALDEEN HAUSNARKETA ETA PROPOSAMENAK
5. PROPOSAMEN NAGUSIAK
6. ERANSKINAK
 - Hitzaldiak
 - Prentsa oharra

1. SARRERA

Sarean Elkarteak 2008ko 20, 21 eta 22an XXV. Topaketak burutu ditu Eibarko Portalea Kultur Etxean.

Jardunaldi hauetako aztergaiak "Eskola Publikoa norantz" izenburupean aurkeztu ziren eta txosten honek hausnarketa horren lekukoa izan nahi du.

Esan behar da XXV. Topaketak egin izanak SAREAN gidatzen duen talde eragilearen barruan, eztabaida interesgarria eragin duela eta ondorioz hamar urtetan zehar Eskola Publikoaren alde egindako lanaren ebaluaketa egin dela. Jakin Badakigu Hezkuntzaren makinaria geldoa dela hobekuntzak bereganatzeko baina urte luze hauetan gure aldetik batzutan eta beste erakundeekin elkarlanean askotan Hezkuntza Sailan aurkeztutako iradokizunak baliogarriak izan dira, egindako ahaleginak ez dira hutsalak izan eta mantso bada ere, aurrerapenak egin direla.

Hau holan izanik, etorkizunerako nahi dugun Eskola Publikoari buruzko azterketa egitera ausartu gara; zeregin honetan ez gara hutsetik abiatzen, Eskola Publikoaren xede eta helburuak ardatz gisa hartuta, aurreko Topaketetan egindako proposamenak kontuan hartu baitira.

Oraingo hausnarketan aditu batzuen laguntza izan dugu ere eta haiek aurkeztutako hitzaldien bidez gaiari buruz genuen iritzia aberaztu dugu; horrela, Elena Martín andereak "Los retos de la Escuela Pública" eta Jurjo Torres jaunak "La educación Pública en los inicios del siglo XXI: Algunos desafíos, compromisos y urgencias" hitzaldiak (Eranskina 1) garatu zituzten.

Hitzaldi eta eztabaiden ondoren, jardunaldietan parte hartu dugunon iritzian indartuta geratu den ideia hauxe izan da, Eskola Publikoa beharrezkoa dela, beste arrazoen artean, etorkizuneko gizarteak izango dituen ezaugarrien artean, ekitate eta kalitatea uztartuta bermatu daitezkeela egiaztatzeko.

SAREAN Elkartearen ahalegina bide horretatik joan da sortu zenetik eta orain, XXV. Topaketak burutu direnean, dugun indar eta ilusio guztiarekin jarraitzeko proposamena berretsi dugu eta txosten honetan biltzen diren ideiak asmo horrekin aurkezten dira.

2. PARTAIDEEN DATUAK

Topaketetan parte hartzeko matrikula orria betetzen da batez ere ostiraleko lan taldeetan egoteko eta ematen ditugun datuak zerrenden arabera dira. Dena dela hitzaldietan parte hartzeko ez da matrikularik egin behar eta ostiraleko eztabaidetarako datozen partaide guztiak onartzen dira alde aurretik matrikulatuta egon ez arren. Hau kontuan harturik hona hemen XXV. Topaketan datuak:

| Matrikulatuak | Parte hartu dutenak | | |
|---------------|---------------------|------------|------------|
| | 77 | 73 | |
| Osteg. | | Ostir.goiz | Ostir.arr. |
| 54 | | 77 | 63 |

Txostenean lan taldeetan azaltzen diren iritziak eta proposamen adostuak jarri dira; horretarako erabili den materiala bi motatakoa izan da:

- Taldeetako idazkariak jasotako proposamenak
- Partaideek betetzen duten fitxa. Fitxa hau partaideei ematen zaien dokumentazioan doa eta entregatzea borondatzezkoa da. XXV. Topaketetan hauek izan dira jasotako fitxen arabera datuak:

| Jasotako fitxak 35 | | | |
|--------------------|---------|-----------|------------------------|
| Araba | Bizkaia | Guipuzkoa | Jatorria zehaztu barik |
| 4 | 5 | 23 | 3 |

| Erakundea | | |
|------------|--------------------|-------------------|
| Ikastetxea | Laguntza Zerbitzua | Guraso Elkartekoa |
| 32 | 2 | 1 |

Jasotako fitxetan ikastetxeen tamainari buruz agertzen diren datuak

| | Eskola Txikia | Lerroak | | | | |
|----------------|---------------|----------|-----------|----------|--------------|---------------|
| | | 1 | 2 | 3 | 4tik aurrera | Zehaztu barik |
| Araba | 1 | - | 3 | - | - | - |
| Bizkaia | - | - | 2 | 2 | 1 | - |
| Gipuzkoa | - | 2 | 8 | 6 | 3 | 4 |
| Iekugabeak | - | - | 1 | 1 | - | 1 |
| GUZTIRA | 1 | 2 | 14 | 9 | 4 | 5 |

3. HAUSNARKETAREN ARDATZA

Gizartea aldatu den moduan, Eskola Publikoa azken 10-12 urte hauetan asko aldatu da: Ikasle kanpotarrak sartu dira gure eskoletan, teknologia berriak erabiltzen ditugu, 0-2 maila eskolatik kanpo geratu da, jangela zerbitzua orokortu da, curriculum berria dugu eskuartean...

Ikaslearen heziketak gizartea hobetzeko baliagarria izango bada Eskola gizarte horren beharretara egokitu behar da.

XXV. Topaketa hauetan Eskola Publikoaren helburuak eta ezaugarriak berrikusi eta atal desberdinak aztertuko ditugu Eskola Publikoa gizarte libre, justu eta solidario baten ardatza delako ustean baikaude.

ESKOLA PUBLIKOAREN HELBURUAK

- Herritar guztiak hezte da. Integrazio bikoitza lurtu nahi du: klase sozialen artekoa eta kultura eta erlijio komunitateen artekoa.
- Aukera-berdintasun konpentsatzailea. Aukera gutxien dituenari (sozialki, kulturalki, ekonomikoki, fisikoki, psikikoki ...) baliabide eta aukera gehiago ematea.

ESKOLA PUBLIKOAREN EZAUGARRIAK

- Herritar guztiei zuzendutako eskola. Ikasleen jatorria heterogeneoa.
- Herriari lotuta, ingurunera irekita, gizarte-gertaeretan inplikatzeko dena. Gizarte erakundeekiko lankidetzan.
- Hezkuntza doakoa. Jabetza eta finantziarioa publikoa
- Laikotasuna: pertsona orok (erlijiosoa izan ala ez) munduarekiko duten ikuspegi desberdinen errespetua lantzen duena. Eskola Publikoan ikasleek berezitasun guztiak errespetatuz, zerk elkartzen dituen aurkitu behar dute.
- Herritar guztiei zuzendutako kalitatezko heziketa-eskaintza. Baztertutako kolektiboari arreta berezia dedikatzea eta urritasunak zein gaitasun handiak dituzten ikasleak garatzeko aukera eskaini. Sektore publikoan, zerbitzua erabiltzen duten herritar guztientzat emaitzarik onenak lortzea da helburu.
- Konpromisoa eraberritze eta berrikuntza pedagogikoarekin, gizarteraldaketei eta hezkuntza-aldaketei erantzuteko.
- Lan munduan sartzea eta gizarteratzea sustatuko dituen, herritartasunaren eta inklusioaren sustatzailea.
- Hezkuntza-komunitatearen partaidetza demokratikoa

Iturriak: "Euskal Herrirako Curriculuma" eta "Colectivo Lorenzo Luzuriaga"

4. LANTALDEEN HAUSNARKETA ETA PROPOSAMENAK

1.- ZERBITZUAK

- Jantokia
 - Leku fisikoa
 - Ikasleen aukeraketa
 - Langileak
 - Arduraduna
 - Catering enpresak
 - Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua

- Garraioa
 - Ikasleen aukeraketa
 - Langileak
 - Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua

- Beste proiektuak: liburutegia, kirola

- Zerbitzu berriak

2.- ESKOLA PUBLIKOAREN IRUDIA

- Irakasleak
- Irakasle ez diren langileak
- Zuzendaritza
- Eskolan egiten den lana
- Gurasoak
- Administrazioaren papera Eskola Publikoaren irudi positiboa indartzeko
- Ikastetxea aukeratzeko eragina duten ezaugarriak

3.- ESKOLA KOMUNITATEA, KIDEEEN EGINKIZUNA ETA PERFILA

- Ikasleak
- Irakasleak
- Zuzendaritza Taldea
- Gurasoak
- Beste langileak
- Figura berriak

1. - ZERBITZUAK

Gaur eguneko gizarteak garapenerako aukeratu duen eredua dela eta familiengan behar berriak sortarazi ditu, seme-alaben heziketa gero eta gehiago etxetik kanpo gauzatzen da eta eskola nahitanahiez zurrunbilo horretan murgilduta dago, ikasleek eskola orduetatik kanpo behar dituzten zerbitzuak pixkanaka-pixkanaka eskoletan antolatzen ari dira. Errealitatea hau izanik, ikastetxeen Zuzendaritzek antolakuntza hori ona izan dadila eskatzen dute. Hona hemen zerbitzu nagusien inguruan azaldu diren arazoak eta egiten diren proposamenak:

1.1-Jantokia

- Leku fisikoa
 - Gero eta ikasle gehiago galditzen dira jantokian eta leku falta arazo larria bihurtzen ari da.
 - Ikastetxe askotan instalazioak zaharkituta daude.
 - Antolakuntza ona edukitzeko une garrantzitsuak dira jantoki baino lehen edota ondorengoak baina ikastetxe askotan ez dago aterperik ikasleak egoteko.
 - Ratioak oso handiak direnez taldeak ezin dira banatu eguraldi txarreko egunetan ikasleak ikastetxeko beste tokietan jartzeko.

Proposamenak:

- ❖ Posible den kasuetan lekua handitu eta ezinezkoa denean eskolako espazioak multifuntzionalak izateko egokitzea.
- ❖ Instalazioak berriztu eta OOG-k bazkaria bertan prestatzeko proiektua aurkezten duenean, aztertu eta egokia bada ahalbidetu.

- **Ikasleen aukeraketa**
Ikastetxe gehienetan orain arte jantokia eskatu dutenak onartu dituzte baina leku batzuetan arazoak dituzte batez ere leku faltagatik. Galderak sortzen dira: jantokian geratzea ez al du ikasle guztientzat posible izan behar? Aukeratzeko zelan erabakitzen da zein irizpide den garrantzitsuena? Zein da gauza erabakitzeko familia batek beharra duen ala ez?

Proposamena:

Ikasle guztiak hartzeko bideak jarri.

- Langileak
 - Jantokiko begiraleak hezitzaileak izateko formakuntzarik ez daukate.
 - Koordinatzeko denborarik ez daukate.
 - Batzutan ez dira lan horretarako egokiak eta harremanetarako arazoak adierazten dituzte.

- Ratioak gehiegizkoak dira.
- Hizkuntza eskakizunak sarritan dituzte betetzen.

Proposamenak:

- ❖ Jantokiko begiraleei formakuntza egokia eman.
 - ❖ Jantokiko denbora esparru hezitzailea baldin bada, begiraleek ordu horietako ekintzak antolatzeko, plana egin eta ebaluatzeko eta arduradunarekin koordinatzeko edota gurasoekin hitz egiteko denbora eduki behar dute.
 - ❖ Hizkuntza eskakizuna lortzeko bideak jarri.
 - ❖ Ratioak jeitsi.
- Jantokiko arduraduna
 - Jantokiko ardura gehiegizkoa da Zuzendaritza Taldearen gainean uzteko, beraz, arduraduna beharrezkoa da.
 - Ikastetxe askotan urtero pertsona desberdina izendatzen da eta ondorioz ez du enkajerik eskolako proiektuarekin.
 - Ikastetxe bakoitzeko jantokien kokapena (edo jantoki kopurua) ez da kontuan hartzen lanpostu honen orduak finkatzeko.
 - Arduraduna hizkuntza eskakizun gabeko langilea da.

Proposamenak:

- ❖ Arduradunaren lanpostua zehaztu eta ikastetxe guztietarako izendatu.
 - ❖ Arduradunaren dedikazio denbora kudeatu behar duen jantokiaren ezaugarrien arabera jarri.
 - ❖ Arduradunari antolakuntza eta arlo ekonomikoan behar duten prestakuntza eman.
 - ❖ Lanpostu berriak bete behar direnean hizkuntza eskakizuna betetzen duten arduradunak izendatu.
- Catering enpresak
 - Ikastetxeetan oso positiboki baloratzen da bazkaria bertan prestatzeko instalazioak edukitzea. Honek neurri handi baten bazkariaren kalitatea baldintzatzen du eta catering enpresa berbera izanik ikastetxean prestatzen den bazkaria askoz hobea da.
 - Ez da egokia ikusten ikastetxeetan enpresa aukeratzeko posibilitaterik ez edukitzea.

Proposamenak:

- ❖ Ikastetxe guztietan sukaldea egoteko planifikazioa egin.
- ❖ Catering enpresa gehiago homologatzea eta ikastetxeei aukeratzeko posibilitatea eman.

- ❖ Menuei dagokienez ikastetxeek proposatzen dutena kontuan hartu.

Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua

Jantokia eremu hezitzailea dela ziurtatu behar da.

- Jantokiko zeregina eskolako beste ekintzak bezala, Hezkuntza proiektuan sartzeko denborarik ez dago, are gehiago, koordinazio minimorik egiteko ere ez.
- Guraso Elkarte batzuk antolatu dituzte begiraleentzako ikastaroak baina horrek suposatzen du haien kabuz egin behar dutela formakuntza hori.
- Elkarbizitza planean sartzeko zailtasun handiak daude koordinatzeko biderik ez dagoelako. Ikasleen portaera dela eta arazoren bat sortzen bada ez dago batasunik konpontzeko langileek ez dutelako ezagutzen egoera horietarako araututa dagoena eta eskolak duen jarraibidea.
- Gehienetan bazkal osteko planik ez dago lehengo arrazoi berberetatik, denbora falta eta begiraleen formakuntza faltetatik.

Proposamenak:

- ❖ Administrazioak jantokia eremu hezitzailea izateko baldintzak jarri: denbora eta formakuntza langileentzat.
- ❖ Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan jantokia sartzea beste atalak bezala. Bertan sukaldari eta begiraleek ere beren aportazioak egiteko aukera eduki.
- ❖ Elkarbizitza planean jantokia era errealean sartu.
- ❖ Udalaren parte hartzea lortu: ludoteka egin, aisialdirako monitoreak etab.

1.2.- Garraioa

- Ikasleen aukeraketa
 - Ikastetxe desberdinen artean garraioa konpartitzen denean arazoak daude.
 - Ikasleak etxez aldatzen direnean arazoak sortzen dira.
 - 2 urteko ikasle eta batzutan anai-arrebak dituztenekin arazoak.

Proposamenak:

- ❖ Eskola mapa ondo egin edukitzea.
- ❖ Ikastetxeetako iradokizunak kontuan hartzea.

- Langileak
 - Ratio handia adin desberdin askorekin.

Formakuntza falta umeekin egoteko.

Langile asko hizkuntza eskakizunik gabekoak.

Proposamenak:

- ❖ Garraioko langileei beharrezkoa den formakuntza izateko bideak jarri.
- ❖ Ratioa jeistea.
- ❖ Begiraleek hizkuntza eskakizuna betetzen dutela ziurtatu.
- ❖ Begiraleei koordinatzeko denbora eman.
- ❖ Garraioko begiraleak jantokiko begirale ere izatea.

- **Ikastetxeko Hezkuntza Plana**
 - Ikastetxeko programazioan ez da garraioa arlo hezitzaile bezala kontenplatzen.
 - Denbora hau planifikatzeko eta aztertze ko koordinazio unerik ez dago.
 - Garraioko ziurtasuna ez da beti bermatuta geratzen.

Proposamenak:

- ❖ Garraio denbora esparru hezitzaile kontsideratu eta horretarako behar diren baldintzak jarri eta ebaluatu.
- ❖ Eskolan garraioaren jarraipena egin gurasoen parte hartzearekin.
- ❖ Garraioaren plangintzan Eskola Komunitatearen iritzia kontuan hartu.
- ❖ Ziurtasuna bermatu.
- ❖ Baliabide gehiago jarri.

1.3. - Beste proiektuak

- Liburutegia eta kirol arloko arduradun gutxi dago baina ikastetxe guztietan egon beharko lukete.
- Arduradun gehienak erdaldunak dira, beraz, ikastetxearen Normalkuntza Proiektuentzako oztopo bat suposatzen du.
- Arduradunen bajak ez dira beti betetzen eta proiektuaren jarraipena arriskuan jartzen da.

Proposamenak:

- ❖ Ikastetxe guztietan bi proiektu hauek finkoak bihurtu ez osagarri bezala.

❖ Arduradunen hizkuntza eskakizuna ikastetxearen Proiektuarekin bat.

❖ Figura hauek RPTan kontenplatuta eduki.

- ❖ Eskolako beste jarduerak bezala esparru hezitzailea kontsideratu eta holan izan dadin baliabide egokiak eman.

1.4. - Zerbitzu berriak

Gaur egun osatzen diren foroetan, azalpen instituzionaletan edota komunikabideetan behin eta berriro aipatzen dira gizartearen eskakizunak eta familia eta lana uztartzeko bideak. Gaiaren inguruko iritziak desberdinak dira baina arrazoi bat edo beste dela medio eskola bete betean inplikaturik geratzen da. Irakaskuntzan sarritan gertatu ohi den bezala, Administrazioari kostatzen zaio antolakuntza berriei erantzuna emateko behar diren baliabideak jartzea eta nahiago du ezjakinarena eginez egoera berezi eta anitzak mantentzea.

Topaketeten partaideek emandako datuen arabera aurrekoa baieztatzen da eta hona hemen ikastetxe askotan dagoeneko antolatu diren zerbitzu berriak:

- Zaintzak: leku askotan "goiz txoko" bezala ezagutzen dena eta bestetan goiz edo arratsaldetan martxan dagoena.
- Euskera klaseak etorri berrientzat.
- Haurtzaindegia

Zerbitzu honen antolakuntzan ikastetxearen Zuzendaritzak eta Guraso Elkarteak hartzen dute parte, borondatea eta lana jartzen dute baina behin-behineko egoeran aurkitzen dira beti.

Proposamenak:

- ❖ Lehenengo eta behin Hezkuntza Sailak zerbitzu berrien erantzukizuna har dezala. Ezinezkoa da diskurtsoan ideia bat defendatzea (familia eta lanaren uztarketa) gero gauzatzeko errekurtsorik jartzen ez badira.
- ❖ Ikastetxeek arlo honetan pairatzen duten behin-behinekotasunarekin amaitu zerbitzuak arautuz.
- ❖ Zerbitzu hauen langileei hizkuntza eskakizuna eskatu, koordinatzeko denbora eman eta formakuntza eskaini.
- ❖ Ikastetxe bakoitzeko maila sozio ekonomikoaren arabera zerbitzu osagarri hauek jartzeko erreztasunak eman.
- ❖ Beste zerbitzuak bezala, Ikastetxearen Proiektuaren barruan sartuta daudela ziurtatu.

2. - ESKOLA PUBLIKOAREN IRUDIA

Aztertu genuen bigarren gaia, Eskola Publikoak gure ikuspegitik ematen duen irudia izan zen. Askotan antzinako topikoen arabera juzgatuak sentitzen gara, agian benetan eskoletan egiten den lana ezagutzen ez delako, akaso egitearekin konformatzen garelako eta batez ere Hezkuntza Saila sakonean inplikatzeko ez delako. Ajente desberdinak aztertu ziren:

2.1- Irakasleak

- Puntu honetan egin ziren komentarioak kontuan hartuta ikusten dugu guk geuk, talde bezala, ez dugula gure buruari buruz irudi ona.
- "Funtzionario" hitza zentzu ezezkorrean erabiltzen da.
- Baiezko faktore gutxi aipatzen dira; nagusia ikasleekin hurbiltasuna nabaritzen dela.
- Eskolatik kanpoko jendeak, lan gutxi egiten dugula pentsatzen delako ustea dugu.

Proposamenak:

- ❖ Gure lana eta eskolan egiten duguna sentitu.
 - ❖ Irakasleen arteko elkarrizketa gehiago.
 - ❖ Ikastetxeko ildoak sendoa dela adierazi.
 - ❖ Eskolan egiten duguna kanporatzeko lotsarik ez eduki. Informazioa eman.
 - ❖ Formakuntza
 - ❖ Autoestima ikastaroak
 - ❖ Ebaluazioa hobetzeko bide bezala hartu eta praktikatu gure artean.
 - ❖ Berrikuntzak ondo bideratzeko denbora.
 - ❖ Plantila egonkorragoak eduki.
 - ❖ Hezkuntza Sailaren errekonozimendua.

2.2- Irakasle ez diren beste langileak

- Ahalegin handia egiten duen kolektiboa.
- Formakuntzarik gabeko langileak.
- Eskola gehienetan "inbisibleak" eskuhartzerik gabe gelditzen dira eta eskolan integratu gabe, bigarren mailako langileak.

Proposamenak:

- ❖ Eskolako Proiektuaren partaideak izateko behar duten denbora edukitzea.
- ❖ Jantokiko denbora esparru hezitzailea baldin bada, begiraleek behar duten formakuntza edukitzea.

- ❖ Eskolako partaideak direla sentitzeko tratua jasotzea: informatuta egotea, erabakiak egiteko esparrua...

2.3-Zuzendaritza

- Behinbehineko kolektiboa, momentuzko arazoak konpondu behar dituena.
- Kargu desatsegina, sarritan derrigorrez izendatua.
- Lan gogorra egin behar duen taldea.
- Batzutan ez dago argi noren ordezkariak.
- Lan burokratikoa egiteko dagoela.
- Kargu garrantzitsua baina beldur ematen duena.
- Formakuntza berezia behar duen kolektiboa.

Proposamenak:

- ❖ Profesionaltasuna eta erabakiak hartzeko autonomia gehiago.
- ❖ Antolakuntza plana edukitzea.
- ❖ Argi Zuzendaritza eduki eskola osorako dela eta kolektiboen arteko harremanak zaindu eta bultzatu.
- ❖ Lan burokratiko gutxiago eduki arlo pedagogikora denbora gehiago dedikatzeko.
- ❖ Administrazioaren laguntza eta sinesgarritasuna edukitzea.
- ❖ Hautagai gehiago egoteko pizgarriak eskaini.
- ❖ Lanari koherentzia eta jarraipena ematea.
- ❖ Beste erakundekin eta familiekin proiektua konpartitzea.
- ❖ Beste eskoletako zuzendaritzekin harreman gehiago edukitzea.
- ❖ Iraunkortasun minimoa bermatzeko prozedura jarri.

2.4-Eskolan egiten den lana

Orokorrean eskolan egiten dugun lana ondo baloratzen dela uste dugu baina era berean pertzepzio berezia dago, inoiz ez dela nahikoa. Lan handia egiten da "boluntarismoan" oinarrituta eta honek batzutan nekea sorrerazten du. Koordinatzeko denbora falta nabaria igartzen da.

Proposamenak:

- ❖ Eskolan egiten den lana ezagutarazi eta konpartitu. Inguruari zabaldu.
- ❖ Hausnarketa egiteko une gehiago eduki.

- ❖ Koordinatzeko denbora izan, eskolako estruktura osoa definitzeko, irizpideak zehazteko, zikloen arteko kohesioa ziurtatzeko eta maila bereko taldeak metodologia bateratua erabiltzeko.
- ❖ Zerbitzuak eskolako proiektuan integratzea.

2.5- Gurasoen irudia

Gurasoen inguruan dagoen pertzepzioa ez da bateratua, hiru motatako guraso nabarmentzen dira:

- Kolektibo txikia, oso konprometitua eta parte hartzeko beti prest azaltzen dena.
- Eskolaz arduratzen ez direnak, umeak uzten dituzte eta ez dute parterik hartzen, eskola laguntza-zerbitzu hutsa kontsideratzen dutenak.
- Eskolara protesta egiteko edota exijitzeko bakarrik hurbiltzen direnak.

Proposamenak:

- ❖ Eskolako lana gurasoei ezagutarazi. Haiekin momentu gehiago konpartitzeko bideak aurkitu.
- ❖ Gurasoei partaidetza indartzeko erak eskaini.
- ❖ Gurasoen formakuntza bultzatu eta ahalbidetu.

2.6 - Administrazioak egin dezakeena Eskola Publikoaren irudi positiboaren alde:

Eskola Publikoaren irudia hobetzeko proposamenak gauzatzeko, Topaketen partaide guztien iritzian Hezkuntza Sailaren erantzukizuna faktore garrantzitsua da. Hona hemen hobekuntza hori lortze aldera H. Sailak egin dezakeena gure ustez:

- ❖ Lehenengo eta Behin Eskola Publikoan sinistu eta propioa dela benetan erakutsi.
- ❖ Eskola Publikoaren irudia zaindu, gizarteari informazio ona eta zabala eskainiz: Matrikula kanpainetan, Eskola Kontseiluko Hauteskundeetan etab.
- ❖ Baliabideak jarra: pertsonalak, eraikuntza egokiak eta beharren arabera hornikuntza.
- ❖ Proiektu berritzaileak bultzatu eta gauzatzeko era koherenteak ziurtatu.
- ❖ Zuzendaritza Taldeak zaindu. Hautagaiak egon daitezzen neurri efektiboak hartu.
- ❖ Ikastetxeekin komunikazio zabala izateko bideak ireki eta kudeaketa organoen iritzia kontuan hartu. Ikastetxeetara errealitatea ezagutzeko hurbildu, ez kontrolatzeko bakarrik.
- ❖ Gaur eguneko zerbitzuak hobetu eta ikastetxeko Proiektuan sartu bete-betean eta ez aparteko gehikuntza moduan: jantokia, liburutegia, kirola...
- ❖ Gizartean aldarrikatzen dituen zerbitzu berriak asumitu ondorio guztiekin: antolakuntza, pertsonalgora eta hornikuntza eta leku egokitzapena.
- ❖ Ikastetxe bakoitzaren itinerarioa osatu.

- ❖ Administrazioaren beste atalekin (Udalak edota beste Sailak) akordioak lortu Eskola Publikoaren beharrak asetzeko.

2.7 - Ikastetxea aukeratzeko eragina duten ezaugarriak

Gurasoek adierazten dutenaren arabera, seme-alabentzat ikastetxea aukeratzeko unean honako ezaugarriak hartzen dituzte kontuan:

- ❖ Lehentasuna ematen diete zerbitzuei. Oso garrantzitsua da gurasoentzat eskaintza zabala edukitzea.
- ❖ Gertutasuna
- ❖ Ikastetxearen Proiektua
- ❖ Eskolan dauden ikasleen maila sozioekonomikoa
- ❖ Hizkuntza eredua
- ❖ Eraikuntzaren Egoera
- ❖ Ikastetxe integrala izatea
- ❖ Etapa desberdinen arteko koordinazioa
- ❖ Partaidetza izateko eskaintzen den aukera

3.- ESKOLA KOMUNITATEA, KIDEEN EGINKIZUNA ETA PERFILA

3.1 - Ikasleak

Eskolako bizitzan ikasleak protagonista nagusiak direla uste dugu eta ondorioz aktiboak izan behar dutela. Egia da beti hori ez dela betetzen eta adierazten duten "pasibotasuna" gainditzeko ondoko aspektuak zaitzea garrantzitsua iruditzen zaigu:

- Partaidetza, hau da, ikasleei parte hartzeko aukera eta bideak ematea.
- Eskolako bizitzan ikasleen inplikazioa ezinbestekoa da; hau partaidetza indartzen den hainean handitzen dela konprobatu dugu.
- Eskola Komunitatean ikasleei duten erantzukizuna exijitu behar zaie. Eskubideak beti betebeharrekin batera doazela demostratu behar zaie.
- Harreman egokiak izatearen garrantzia eta abantaila deskubritu behar dute, berdinen artean zein helduekin.

Arlo hauek indartzen diren neurrian ikasleek eskola "propioa" sentituko dute eta ez "derrigorrezko arau multzoa".

Hobekuntzaren bidean, aipatutakoa ikastetxean bertan programatu eta landu behar da baina badira beste faktore batzuk kontuan hartzeko eta hauek Hezkuntza Sailari dagozkio:

- ❖ Maila sozioekonomikoaren arabera baliabideak jarri.
- ❖ Etorkinak edota behar berezietako ikasleak kontuan hartu antolakuntza egiteko eta ghettoen sorrera ekiditzeko.

3.2 - Irakasleak

Gaur eguneko Eskolak dituen erronkei erantzun egokia emateko ondoko ezaugarriak dituzten irakasleak behar ditu:

- Elkarlana egiteko gaitasuna. Topaketen partaide guztien iritzian irakasle isolatuen aroa gaindituta dago; egun talde-lana oinarrizko abiapuntua da ikastetxearen Proiektua martxan jartzeko.
- Ikastetxearen Proiektuan inplikaturik egotea.
- Parte hartzen duten irakasleak.
- Hausnarketa egiteko gogoia duten irakasleak, elkarriketara ohituak eta irizpideak bateratu ondoren adostazunetara heltzeko trebatuak.
- Etengabeko formakuntzan dagoen irakasleria.
- Koordinazioa baloratu eta sistematikoki praktikatzen duten irakasleak.

- Gurasoekin harremanak bultzatu eta partaidetza ahalbidetzen duten irakasleak.
- Ikasgelan irakaskuntzaren behatzaile eta eragile.
- Metodologiaren aztertzaile.
- Irakasleak ondo ezagutzen dituen irakaslea.

Lehen bezala aspektu guzti hauek ikastetxean bertan edo norberaren izaeraren arabera landu daitezke baina uste dugu Hezkuntza Sailaren betebeharra dela honetarako oinarriak jartzea:

- ❖ Koordinaziotarako denbora.
- ❖ Irakasle guztien lana berdin baloratzea kolektiboan desberdintasunik jarri barik.
- ❖ Formakuntza mota desberdinak eskaini.
- ❖ Kalitatezko aholkularitza eskaini.

3.3 - Zuzendaritza Taldea

XXV. Topaketetako partaideen kopurua handia Zuzendaritza Taldeetako kideak izanez, ardura handia somatu zen ikastetxeetako kargu garrantzitsu honen inguruan. Gure ikastetxeetan nahi dugun Zuzendaritza Taldearen ezaugarriak askotan aztertu ditugu eta esan dezakegu jakin badakigula zein ezaugarri izan behar dituen. Hona hemen horien laburpena:

- ❖ Gutxieneko egonkortasuna duen Taldea, ez urtero talde berria.
- ❖ Eskolako arlo pedagogikoa gidatzeko denbora nahikoa duena.
- ❖ Ikastetxearen antolakuntza egiteko gaitasuna duena.
- ❖ Berrikuntza bultzatzeko ilusioa transmititzen duena.
 - ❖ Eskola Komunitateko kideen arteko harremanak ahalbidetzen dituena. Elkarriketa eta hausnarketaren bultzatzailea.
 - ❖ Arlo guzti hauetan formatuta.
 - ❖ Pizgarri egokiekin konpentsatuta.

Gaur eguneko Taldeek saiatu arren oztopoz beteriko bidea aurkitzen dute, batez ere Administrazioak kargu honi egozten zaion zamagatik.

- Burokrazia gero eta handiagoa.
- Erantzukizunen zama. Zerbitzuak, eraikuntza, pertsonala...
 - Administrazioaren apoio falta. Are gehiago, sarritan apoio barik presioa bakarrik igartzen dute.
 - Erabakiak hartzeko gaitasun eza.
 - Kideen exigentziak harremanetan.

Errealitateak esaten digu ikastetxe askotan (gero eta gehiagotan) oso zaila izaten dela Zuzendaritza osatzeko hautagaiak aurkitzea eta kopuru handi bat Administrazioak zuzenean izendatuta dagoela.

Sarritan ikastetxeen Zuzendaritzari buruz hitz egiten denean, eztabaida foroetan eta karguak aztergai izan direnean sortzen den lehen galdera: "Zergatik ez dago hautagairik?"

Erantzuna begi bistan dago: **Karguak eskatzen duen erantzukizuna eta betetzeko eskaintzen diren ahalmen eta konpentsazioen artean desoreka itzela dagoelako.**

Administrazioak hau ulertzen duen unean, agian, arazoa konpontzeko bidetik abia gaitzke ikastetxeen eta Eskola Publikoaren onerako.

3.4 - Gurasoak

Eskola Komunitatean partaide guztiak oso garrantzitsuak dira bakoitza bere esparruan. Gurasoei partaide izan daitezela eskatzen zaie baina batzutan ez dago oso argi partaidetza horren ezaugarriak Horregatik denon arteko elkarlana bultzatzeko oinarri sendoa jartzea komenigarria ikusten da:

- ❖ Lehenengo eta behin denon artean partaidetza definitzea.
- ❖ Gurasoei informazio ugari eta zabala ematea bai Administrazioak baita ikastetxeak ere.
- ❖ Parte hartzeko bideak zehaztea.
- ❖ Gurasoengandik sortzen diren proposamenak aztertu, baloratu eta ikastetxearen Proiektuarekin bat egiten badute bultzatu.
- ❖ Harremanak ugaritu bide desberdinak eskainiz.
- ❖ Guraso eskolak bultzatu.

3.5 - Eskolako beste langileak eta sortu behar diren figura berriak

Ikastetxeetan garrantzi handia ematen zaio Proiektu koherentea edukitzeari. Eskola komunitatearen ahalegina helburu horren bila zuzentzen da, baina hori lortzea faktore askoren uztarketan datza:

- ❖ Zerbitzuak Proiektuaren barruan integratu behar dira eta horrek eskatzen dituen baliabide fisiko, ekonomiko eta pertsonalak bermatuta eduki behar dira.
- ❖ Zerbitzuetako langileek hizkuntza eskakizuna bete behar dute, formakuntza egokia eta koordinatzeko denbora izan.
- ❖ Zerbitzu berrien beharra ikusten denean Administrazioak antolatzeko ardura hartu behar du eta figura berriak sortu.
- ❖ Behar bereziak dituzten umeei erantzuna emateko baliabide egokiak behar dira.
- ❖ Eskolak bakarrik ezin du esparru hezitzailean dauden behar guztiei erantzuna eman, Administrazio desberdinen arteko hitzarmenak behar dira.
- ❖ Atal guztien arteko koordinazioa bermatuta egon behar da.

5. PROPOSAMEN NAGUSIAK

XXV. Topaketetan egindako hausnarketaren ondoren argi dago Eskola Publikoaren norabidea leku batetan argi badago, hori da ikastetxeetan. Eztabaiden ondoren egindako proposamenetan, konpromiso sendoa edukitzeko, esparru guztietan lan egin behar dela baieztatzen da.

Proposamen orokorretan Administrazioa eta Ikastetxearen erantzukizuna azpimarratzen da eta hori Ikastetxearen zeregin guztiak jasotzen dituen Proiektua koherentean azalatu behar dela izan da lan talde guztien eskakizun nagusia.

Ikastetxearen erantzukizuna Proiektua osatzea da. Horretarako Eskola komunitatearen atal guztien partaidetza definitu eta bultzatu behar du. Talde pedagogikoen elkar lana ahalbidetu eta metodologiaren azterketa eta etengabeko formakuntzan ahalegindu. Era berean Proiektua jarraipen egokiaz gidatuko duen Zuzendaritza Taldea edukitzea beharrezkoa ikusten da.

Administrazioaren erantzukizuna errealitatea aztertzea da, ikastetxeetako Eskola Kontseiluen iritzia kontuan hartzea eta Ikastetxeko Proiektua aurrera eramateko baliabideak jartzea. Ahobatez eskatzen da Administrazioak zerbitzuen benetako ardura har dezan eta Eskola Komunitate osorako formakuntza planak garatu daitezken. Azkenean, Hezkuntza Sailak Zuzendaritza Talde sendoak edukitzeko benetako apostua egin dezala eskatzen da.

Txosten honetan egindako proposamenak asko eta batzutan erabaki erreza ez daukatenak direla badakigu, baina etorkizunari begira Eskola Publikoak duen erronkak denon ahalegina eskatzen du; ikusi dugu ikastetxeetan prest gaudela ekiteko, espero dugu Hezkuntza Sailak behingoz aldeko apostua egitea eta holan izanez gero ziur gaude luze barik emaitzak ikusiko ditugula.

6. ERANSKINAK
